

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

Hasierako onarpena ematea hiri hondakin solidoak biltzearen tasa arautzen duen ordenantza aldatzeari

Udalbatzak, 2019ko urriaren 30ean egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea hiri hondakin solidoak biltzearen tasa arautzen duen ordenantza aldatzeari, 2020rako. Erabakia eta aurrekari guztiak jendaurrean egongo dira udaletxeko idazkaritzan, hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, epe horretan interesa dutenek espedientea aztertu eta egokiak deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat emango da ordenantzen aldaketari buruzko erabakia.

Izarra, 2019ko urriaren 31

Alkatea

XABIER ALVAREZ DE ARCAYA